



# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



# Gasteizko XX. nazioarteko antzerkialdia



  
**kide**  
**APAINDURA**  
 Cercas Bajas, 27  
 Tfnoa: 14 41 95  
 GASTEIZ

# ZURE HARATEGIAK

**Z**  
**GARMENDIA**  
 HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13  
 ☎ 28 79 42  
 GASTEIZ



**SANTI**  
 HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17  
 ☎ 270790  
 GASTEIZ

**XABIER**  
**AIZPEOLEA**  
 HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48  
 2 eta 3  
 Abastos Azoka ☎ 26 78 97  
 2 eta 3  
 GASTEIZ



**JOSEBA**

HARATEGIA  
 PARAGUAY MERKATUA  
 10 ZENBAKIA  
 El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89  
 GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi**  
**samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena*  
*kalitaterik onena*

# geu gasteiz urria

## Euskal Zeramikaren Museoan bisitan

10. orrialdea



## XX. Nazioarteko antzerkialdia

16. orrialdea



## Badaiotz kirol taldea

22. orrialdea



# Gasteizko eskola-mapa eta euskara


**HEZKUNTZA SISTEMAREN** An-  
tolamendu Orokorreko Legearen  
(LOGSE) ezarpenak aldaketa eta ondorio  
nabarmenak dakartzkio orokorrean hez-  
kuntza munduari, horien artean, Eskola-  
mapa berri baten elaborazioaren beharra  
dagoelarik. Kontutan hartzen badugu  
96/97 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren  
Hezkuntzako lehen kurtsoa erreformaren  
prozesu barruan sartuko dela eta horren  
ondorioz, Bigarren Hezkuntzan ezartzen  
joango diren aldaketak, ezinbestekoa da  
jadanik Eskola-Maparen elaborazioa.

Eskola-Mapataz hitzegiten ari garenean  
LOGSEren ezarpenak dakartzen hez-  
kuntza-premien plangintzarako tresna batetaz  
ari gara, eta era berean, premia horiek  
asetzeko behar diren baliabideen egoki-  
tzapenez, hau da, gaur egungo egitura  
fisiko, pedagogiko eta langilegoen egoki-  
tzapenez.

Gasteizko Eskola Bilguneko Eskola-  
Mapa egiterakoan, eta euskararen egoera-  
ra gerrikatuz, bilgune honek baditu  
zenbait ezaugarri derrigorrez kontutan  
haurtu beharrezkoak, horien artean: Foru  
Aldunditik Transferituak izan ziren  
Ikastolen garrantzia eta historia; gurasoen  
eskaerari erantzunez B, eta batez ere, D  
hizkuntz ereduak izan duten gorakada  
nabarmena; etorkizunari begira, momentu  
honetan euskal ereduak eskaintzen dituz-  
ten institutuen urritasuna; e. a...

Ezaugarri horiek kontutan hartzen badi-  
tugu eta euskarari eman beharko zaion  
tratamendua aintzakotzat hartuz, ikus dai-  
teke zein parametrotan mugitu beharko  
den Administrazioa bere proposamena  
egiterakoan Gasteizko Bilguneko Eskola-  
Kontseiluko ordezkariekin eztabaidatzeko  
orduan.

Proposamen horrek, Haur eta Lehen  
hezkuntzatik datozen eredu linguistikoak  
kontuan hartu eta Bigarren Derrigorrezko  
Hezkuntzako planifikazioa egiterakoan B  
eta D ereduak indartzea eta bultzatzea  
izan beharko du helburutzat. Hori aurrera



eramateko beharrezkoa izango da eredu  
horiek eskaintzen dituzten Institutuen  
jarraipena; beharrezkoa ikusten den auzo-  
etan D edo B/D ereduak eskainiko dituz-  
ten instituto berrien sormena; eta azkenik,  
A ereduak bakarrik eskaintzen duten  
Institutuetan B eredu ere kontenplaztea.

Argi dago ba, Eskola-Mapak eskatzen  
duen plangintza berri hau egiteko atarian  
egonez, momentu kritiko eta garrantzitsu  
baten aurrean aurkitzen garela Gasteizko  
euskarazko irakaskuntza publikoaren  
etorkizunerako, eta guztion ardura izango  
da, bakoitzak dituen erantzukizun eta  
betebeharrak kontutan hartuz, etorkizuna  
bermatzeko eman beharko diren pausoak  
eta elkarlana egiteko prest egotea.

Era honetan, guztion ahalegina azken  
helburu bakar bat lortzeko saiatzean lego-  
ke, hau da, gizartearen euskalduntzea,  
horretarako, ikastetxe bakoitzaren barne-  
an ahalik eta prozesu indartsu eta kalita-  
tezkoena bilakatzu ikaslegoarentzat.

*Josu Gangoiti  
Arabako hezkuntza ordezkaria*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

**GEU GASTEIZ**

Gasteizko Euskaldunon  
Aldizkaria

**Pedro Asua, 2 3.a**  
Tfno. eta faxa **22 21 53**



elkartearen babesarekin

6.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

**Zuzendaria:** Iosu Kintas

**Erredakzio-burua:** Iñaxio Lopez de Arana  
**Erredakzio-  
batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de  
Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea  
Zurimendi, Miel Anjel Elustondo, Xabier Zabaleta, David  
Alvez, Ismael Diaz de Mendibil  
**Komikia:** Iñigo Sarasola  
**Marrazkiak:** Aitziber Iriondo  
**Maketazioa:** Alex Badillo,  
Asier Perez de Karkamo  
**Publizitatea:** Karlos Fdez. de  
Betoño  
**Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde,  
David Aguilar, Joseba Unzalu, Asier Perez de Karkamo,  
Lorea Zurimendi, Edorta Sanz  
**Kolaboratzaileak:** Txipi  
Ormaetxea, Juan Jose Kastresana, Iñaki Gauna,  
Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia  
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)  
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan  
adierazitakoen erantzukizunik

IZENA: \_\_\_\_\_

ABIZENAK: \_\_\_\_\_

KALEA: \_\_\_\_\_


Kode Postala: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_

Pisua: \_\_\_\_\_

ZKIA: \_\_\_\_\_

# kalea mintzo ertzantzaz



MIGUEL GLZ. DE GARIBAY langabea

**IRAILEAN OSATU** zen Ertzantzaren zabaltze-prozesua Gasteizko komisaldegia irekitzeaz batera. Izan ere, aurreko hilabetearen lehenengo egunetatik ertzainak ikus ditzakegu Gasteizko kaleetan barrena edota gure hiriko edozein kale-kantoitan. Horrek, ordea, era guztietako iritziak sortarazi ditu gasteiztarron artean. Gure hiria hain txikia izanda, ez al dago polizia gehiegi?, pentsa dezake baten batek. Bazen garaia!, etor dakioko burura besteren bati. Hona, bada, zenbait gasteiztarren ustea.

1. *Nola ikusten duzu*

*Ertzantzaren despliegea Gasteizen?*

2. *Polizia gehiegi edo gutxiei dago kaleetan?*

1. Gaizki iruditzen zait, polizia asko dagoelako. Gainera, teorian, Ertzantzaren etorriarekin batera, gainerako poliziak murriztu behar ziren, eta nik ez dut horrelakorik ikusi.
2. Nire ustez, polizia gehiegi dago bai uniformaturik bai paisanoz jantzita, eta hainbeste poliziarekin...

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu





## Antzerki aidia

BERTSOLARIA:

Dani Kastano

DOINUA:

Ari naizela, ari naizela



**urriko eguna  
argiko iluna  
seietan argia  
seitán iluna**

I  
Urtean zehar, zertan ukatu dibertitzen gara berdin beste batzutan dugun aukera alferrikan galdu ezin Antzerkialdira behar ditugu bizpahiru bisita egin Errutinatik ateratzeko kultura kutsu batekin.

II  
Baina sarritan lehertzen digu ekonomien topea gutxieneko prezioa bait da bi milako biletea gazteok zale egin gaitezen hau politika torpea: Kultura zihur izango dela baina ez kultura merkea



**azkarprint**  
Cercas Bajas, 4  
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA  
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak  
ere egiten ditugu**

**GASTEIZ**

amo ederrak  
aire zabalean

**la calle**

taberna

Dultzaina, 10



GENMA UGARTE  
ikaslea

**1.** Oso gaizki deritzot Ertzantzaren despliegeari, hiria poliziaz beteta dagoelako eta lehenengo egunetan gertatu ziren istiluak ikusi nituelako.  
**2.** Gehiegi, dudarik gabe, lehen esan dudana bezala. Polizia-erakunde gehiegi dagoelakoan nago.



AITZIBER IRIONDO  
irakaslea

**1.** Ertzantzak argi asko utzi zuen lehenengo egunetik zein izango zen bere jokabidea: jendea zapaltzea.  
**2.** Gehiegi, ez dakit zenbat dauden biztanle bakoitzeko. Hala ere, uste dut gehiegi dagoela.



ELENA DE LA FUENTE  
laborategiko  
langilea

**1.** Egia esanda, oportetarik etorri berria naiz eta ez dakit ondo zer gertatu den egun hauetan hemen.  
**2.** Jakina, lehen baino polizia gehiago ikusten da orain, batez ere, kotxez batetik bestera doazela. Ikusi, bai, ikusten dira, beste gauza bat da, ordea, ezer egiten ote duten



JON MUJIKA  
ikaslea

**1.** Niri ez zait gaizki iruditzen Ertzantzaren despiegea. Baina ukazina da polizia asko dagoela. Beraz, egokiena, Estatuko segurtasun-indarrak joatea litzateke.  
**2.** Ertzantza etorri denetik gero eta polizia gehiago ikusten dugu kaleetan. Nik uste dut ez dela beharrezkoa hainbeste polizia kaleetan.



ANTXON ARANBURU  
ikaslea

**1.** Lehen polizia asko zegoen eta orain beste polizia-erakunde bat dago. Gehiegi, nire ustez.  
**2.** Lehenengo galdera erantzuteko esan dudana errepikatzen dut: polizia gehiegi dugu gure herrian.



11. Zein urtetan iritsi zen Frantziako Tour-a Gasteiza?

1977AN

12. Nola du izena Egilazko trikuarriak? AITZKOMENDI

13. Zein jauregitan bizi da Eusko Jaurlaritzako lehendakaria?

AJURIA ENEAN

14. Nola esaten da Laguardia euskaraz? BIASTERI

15. Zein da San Prudentzioren zortzikoaren egilea?

JOSÉ FRESCO

16. Gasteizko zein auzotan dago Batzar Nagusiak izeneko kalea?

LAKUAN

17. Zeintzuk dira Arabako zazpi taldeen armarrietan dauden animaliak?

LEHOIAK, OTSOAK, BASURDEAK ETA BELEAK

18. Zein mendizerratan dago San Tirso mendia?

KANTAURI MENDIZERRAN

19. Zein herritan dago Lazarraga jauregia?

ZALDUONDON

20. Zein da Kanpezutik hurbil dagoen mendirik altuena?

IOAR

# Araba gure lurra

*Hemendik aurrera sail honetan sariak izango ditugu. Erantzunak baldin badizkikizu, bidali postal batean (zenbat eta orijilagoa hobea). Zinemarako txartelak irabaz ditzakezu*

31. NON HIL ZEN SAMANIEGO ALEGILARIA?

32. ZEIN DA UZKABUSTAITZ UDALERRIKO HIRIBURUA?

33. ZENBAT HITZ DAUDE IDATZIRIK ARABAKO ARMARRIAN?

34. ARABAKO ZEIN HERRITAN DAGO BITORIKA IZENENKO ZUBI ERROMATARRA?

35. ZENBAT LEGEBILTZARKIDE DITU ARABAK EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO LEGEBILTZARREAN?

36. NOR DA ARABAKO HISTORIALARIRIK NAGUSIENA?

37. ZEIN IBAI IGAROTZEN DA FONTETXA HERRITIK?

38. ZEIN DA OIONGO JAIETAKO PERTSONAIARIK NAGUSIENA?

39. ZEIN HERRITAN DAGO MANTIBLE IZENENKO ZUBI ERROMATARRA?

40. ZEIN DA ARRAZUA-UBARRUNDIA UDALERRIKO HIRIBURUA?



Hipika	azaroaren 12an	5.000 pta
Rafting-a	urriaren 22an (egun bakarra) eta azaroaren 4tik 5era (asteburua)	4.500 pta (egun bakarra) eta 9.000 pta (asteburua)
Puenting-a	urriaren 28an eta azaroaren 19an	3.000 pta
Urlasterretako piragismoa	urriaren 8an	4.500 pta
Rafting-a eta eskalada	urriaren 14tik 15era (asteburua)	9.000 pta
Trekking-a	azaroaren 25tik 26ra (asteburua)	5.500 pta

**PARTE HARTZAILEAK:** 15 urtetik 45 urtera bitartekoak. 15 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

**IZENA EMAN:** ekintzak asteburuetan egingo direla kontutan izanda, aurretiaz eman behar da izena, aurreko astelehenetik aurrera, hain zuzen

## kirol-abentura

Urriaren eta azaroaren ere zure aisialdiari berebiziko bizitasuna emateko aukera izango duzu, horretarako Vital Kutxak erraztasun guztiak zure esku jarriko ditu eta. Oraingo honetan, bi motatako ekitaldiak eskaintzen dizkizugu: abentura kutsukoak eta ekintza nautikoak, zein baino zein erakargarriagoa eta gozagarriagoa. Erne, bada, segidako datuei eta etorri lehen bait lehen Vital Kutxara izena ematera ekintza edota ikastaro mordo batean.

Caja Vital Kutxaren **Telecaja Joven** txartelaren jabeek %15eko deskontua izango dute izena emateko orduan. Bestalde, izena emateko eta ekintzei edo ikastaroei buruzko argibide gehiago jasotzeko, Postas Pasabidea-General Alava kaleko Caja Vital Kutxako bulegora jo behar da goizeko 9etatik arratseko 8etara.

# Patxi



**PATXI ZUBIZARRETA**, bere idazkera xuabe eta kizkurduak adierazten digunez, pertsona atsegina dugu harremanetan eta irudimen oparokoa. Lehenengo begirada batean umeen kaligrafia ekartzen digu gogora: ulerterreza, kaligrafikoa, ekarpen eta ukitu pertsonal handirik gabea. Patxik barruan daraman haurrak isla garbia dauka bere idatzizko munduan. Baina, Patxi pertsona heldua dugu, eta heldua den aldetik, haur horren ezaugarri batzuk muga eta oztopo bihurtzen dira bere adierazpen sortzailean. Lotuegi ditu adierazpideak. Idazleei buruz hitz egiten



NOLAKO IDAZKERA HALAKO IZAERA

# Zubizarreta

Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ GAUEZ

Beatriz	22 61 18	Imma	24 22 41
Iholdi	14 45 91	Iholdi	14 45 91
Nekane	26 91 53	Idoia	24 47 79
Eduardo	14 21 99	Lorena	27 10 13
Leire	27 32 81	Ainara	23 38 28
Lorena	27 10 13	Txaro	28 08 85
Ainara	23 38 28		
Naiara	24 04 42		
Leizuri	25 53 10		



ARRA ASTEBU TSALDEZ RUAN

Oihana	25 30 35	Olatz	25 61 20
Imma	24 22 41	Leire	23 12 23
Rafa	25 22 68	Jose Angel	27 62 41
Iratxe	24 51 81	Saida	26 58 05
Lorena	27 10 13	Idoia	24 47 79
Patrizia	27 78 19	Belen	13 65 10
Iratxe	24 51 81	Monica	13 86 40
Ainara	23 38 28	Itziar	13 86 21
Leire	23 12 23	Maria Jesus	13 54 35



**b**ATA oporretatik bueltan: gure grafologoa. **B**ESTEIA oporrekina ametsetan: iraileko alerako ipuin zoro-zoragarri hura egitera behartu genuena, Patxi Zubizarreta. Batzuek diote Iñakik Patxi harrapatu zuela etxe atarian, maletak jada prest, oporretara zihoala; eskua hartu omen zion eta kartak bota ere bai, etorkizuna iragarri nahian. Ez dakigu, ba... !

*Erreleak hiru andere: batek "goaren" dio, besteak "guden" eta, hirugarrenak, "gota zaiteren."*

*(na. kossio eta amaraizina)*

*Pz*

1964-I-25

denean galdetzekoa ohi da zergatik idazten duten. Egia esan, beti dago arrazoiren bat, ezkutuan bada ere. Gure kasu honetan, nere ustetan, amarekin izandako harremanak eragin nabarmena izan du geure pertsonaiarengan. Izan ere, "femenino"rako joera dauka. Badirudi idazlea bere alderdi femeninoaren bila ari dela. Eta bilaketa horrekiko menpekotasunak, dudarik gabe, muga asko jartzen dizkio Patxiri emozioen arloan. Literaturaren bitartez abentura erromanikoa bilatzen du eta bestetik iraultza justifikatu nahi du, hau da, arrazoi bat bilatu nahi du horren

alde bizi eta hiltzeko. Heroiaren redimentsioa gauzatzen du. Nik esango nuke, nolabait, Marcial Lafuente Estefaniaren antza daukala. Lurrarekin eta jaioterriarekin identifikatzen da neurri handi batean eta horrek gehiegikerietara eramane dezake. Ez du oso gustokoa lan intelektuala, aski aspergarria iruditzen zaio eta, horregatik, ekintza-dinamika bilatzen du. Izenpean ikusten den bezala, helburuak markatzen dituen zaila da bidetik ateratzea edo ideiaz aldaraztea. Aurrera egiten du bazterretara begiratu gabe.

JANTZI ETA OPARIAK



Kutxillera, 40  
Tfnoa: 26 07 10  
GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

«0,7 HORI MISERIA BAT DA, LIMOSNATXOA»

# Oihane Perea

- Hiriburukoa da, <gasteiztarra>, 1.977ko abenduaren 20an jaioa: hamazazpi urte, beraz. Eta sagitario, baina ez alferrik, ez baitio begiratzen. <Urtean bitan edo>.
- Bizkaitarra du aita, <Getxon bizi izan da baina bilbotarra edo>. Gasteizkoa ama. <Biak erdaldunak... euskaldunberriak>. Euskaraz mintzatu izan da haurretarik Oihane. <Baina elebiduna naiz>.
- Gasteizen sortu eta bertan ari da hazten. <Aranbizkarran. Kanpoko jendez betea dago eta Gasteizko edozein auzo haundi bezalakoa da>. Euskaraz mintzo den dendaririk ez, nonbait. <Nik dakidala ez; igual egongo da!>.
- UBIrekin ari da ezinean, Koldo Mitxelena Institutuan. Salamancara abiatu zen estudiantetunantearen sokakoa da. <Alferra eta ganorabagekoa naizela esaten didate>.
- Bertsolaritza du afizio, bertsoa ofizio hartzeko esperantzarik gabe. <Ezin da>. Bestalde, historia du gogoko.
- Erretzaile makurra da.

## Dunan biziorik handiena?

Parranda, eta horrek batzen dituen bizio guztiak.

## Zigarroa tartean?

Sekreto profesional.

## Eta bertutea?

Gauzak jakitea gustatzen zaidala.

## Zein dun momentuko kezkarik handiena?

Etorkizuna.

## GEU elkartearen berririk bai?

Bai. Zenbat eta elkarte gehiago egon, hobe da.

## Elkarteak nahiko egiten al din?

Bere helburuak betetzen ditu.



Aldizkariak beste helburu batzuk betetzen ditu. Gasteizentzat aldizkari euskalduna ateratzen du eta egon liteke hobeto edo txartoago, baina betetzen du bere funtzioa. **Eta beste guztiok, egiten al dugu nahiko?** Inoiz ez da nahiko.

## Egunkariren bat?

'Egin-a'.

## Telebista programarik?

Nire burua zigortzea ei da telebista programa bat ikustea. Haserratu egiten naiz...

## Oporrak non eta zertarako?

Ertamerikan edo Hego Ameriketara. Laguntzeko.

## Etxeko lanak noren kontura?

Aitak eta amak. Alabak? Behar baino gutxiago.

## Nongo euskara da zurea?

Batua.

## Jaki goxoren bat.

Espagetiak. Jatun trebea naiz: gustora jaten dut.

## Filmeren bat?

Idatzitako obra klasikoak gustatzen zaizkidanez, horiek telebistara edo zinera eramanez gustatzen zaizkit. 'Hamar manamenduak', erromatarrenak... eta piratenak batez ere.

## Aktore izenik? (gizonezko nahiz emakumezkoa)

Burusoil hori... zineko burusoil hori... (Yul Briner, esan/ galdetu diot). Hori, horixe, Yul Briner.

## Heure gorputz atalik politena?

Oso gustora nago nire gorputzarekin.

## Ametsik bai, ilusio handiren bat?

Gure herri honetan gustorago bizi ahal izatea. Herriak dituen beharrak gauzatzea. Nire ustez dituenak, jakina.

## Gizarte arloan, zer aldatuko huke?

Dena. Goitik hasiko nintzateke... baina

# arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA  
IRUDIA  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRAGAILUAK  
OPARIGAIK

# ALISAS TABERNA

EZ DAGO  
PINTXORIK

KUTXI • GASTEIZ





# Arabaren bihotzean

**IRAILAK HAMAR,** igandea.

Goizean jaiki orduko zeru zapaiari so ginen gehienok. Lainoak nagusi, euriaren mehatxua nabari. Baina berdin zitzaigun, erabakia hartuta geunden, Albainan geneukan zita berezia. Autoa hartu eta bideari ekin genion.

Bentas de Amentiarra iritxi ginenerako, auto ilarak gero eta luzeagoak. Albainarako bidegurutzea hartu orduko "betikokak", berdez jantzi eta jendea kontrolatzen. "Esto es Burgos"! Guk ez genuen baieztapen hori ziurtatuko zuen kartelik irakurri. Ez genien garrantzia handiagorik eman eta aurrera abiatu ginen. Zenbait herriska txiki eta dotore zeharkatu ondoren, abiadura jaistea gomendatzen zuten seinale batzuekin topo egin genuen. Gazte mordo bat, neska eta mutil, paparretik behera zintzilik antolatzaileen agiriak zituztela. Albainan ginen, gure zitagunean. Soro zabal eta luze batera zuzendu gintuzten eta ilaran eta patxadan aparkarazi

Herrira hurbildu ginenerako, jende ugari zebilen hara-honaka, herria bera eta hantemenka kokatuta zeuden ikusgaiak aztertuz. Beste batzuek ordea, toki egokietan kokatuta zeuden txosnen arrimura, hamaketako gogoia dastatzen.

Herria txikia baina erakargarria irudituz zitzaigun. Erditik doakion erreka kanalizatuak, ur bizi-bizian, erakargarriago egiten duelarik. Eguerdarako gainezka, jendez gainezka jarri zen Albaina. Euriak ere bere bisitalditxo egin zigun, bai eguerdiz eta baita arratsalde ere. Ikuskizunak nonnahi eta ugari, herri kirolak, joteroak, bertsolariak, kontzertuak, haurrentzako jolasleku berezia... Musika ordea isildu gabe, bai txistulari, trikitilari, dultzaineru, fanfarre eta abarren eskutik. Erraldoi eta buru han-



diak ere bereak eta bi egiten. Eta herri bazkaria.

Gure ustez baina, unerik hunkigarriena, eguerdiko hamabi t' erdiak aldera izan genuen. Izan ere, ordu horretan eta pilotalekuan, trebiño Arabako zortzigarren kuadrila izendatu baizuten. Guk ere nola ez, baiezkoa eman genion. Alderdietako aurpegi ezagunik ere ikus zitekeen eta ugari, paparra zabal-zabal eginik.

"TREBIÑO ARABAREN BIHOTZAN" zihoen eranskin eta pankartetako leloak, eta bihotz horren deiari kaso eginez hamabost mila lagun elkartu ginen Albainan. Ea demokrata direla dioten horiek, herritarren nahiari demokratikoki erantzuten dioten. Gorputz bakoitzak bihotz bakarra omen dauka, beraz "TREBIÑO ARABAREN BIHOTZA" baldin bada, non kokatu behar dugu? Erantzutea ez da horren zaila.

Azkenik, nola ez, zorionak UDA elkarterari, hain antolakuntza paregabeagatik eta daramazuen borroka sutuagatik. Eta mila esker Albainatarrei hain gozo eta eskuzabal hartu gintuztelako. Laister batean Arabarrak izanik ospatuko dugu "TREBIÑO EGUNA". Eutsi goiari eta aurrera..

*Abel Enbeita*

goikoa aldatzen baduzu eta behekoa ez... Dena aldatuko nuke.

**Liburu gomendagarriren bat? Idazleren bat?**

'La mujer habitada'. Idazleetan, liburu horren egilea, Gioconda Belli. Eta Alfonso Sastre.

**Zein dun hire barruko motorra? Zer dun eguneroko eragingarri?**

Gizarte aldatzea. Behar den guztia egiten dudana ez dakit baina nire eguneroko lana horretara bideratzen dut, gehienbat.

**Zein dun hire maitasun egoera?**

Gustora.

**Zer hintzateke**

**bertsolari ez bahintz?**

Poeta.

**Gasteizen biziko ez bahintz?**

Kuban, txokoa egiten didaten lekua.

**Gasteizek duen onena?**

Ez dela oso hiri haundia.

**Eta txarrena?**

Jendearen

pasotismoa.

Nolakoa huke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Gizonentzako txarra. Txarra.

**Emakumearen berdintasunaren kokka non zegoen?**

Emakumearen baitan.

**Euskal Herriak duen arazorik larriena? Konpontzeko giltza?**

Ez dela gauza, oro har, dituen arazoei aurre egiteko. Euskaldunaren baitan dago giltza.

**Zer da 0.7?**

Miseria. Limosnatxo.

**Zorionsu izateko sekretua?**

Horretarako gogoia izatea.

**Euskaraz bizi liteke Gasteizen?**

Gaur egun, erabat-erabat ez.

**Zein galdera egingo hioken Rikardo Gz. de Durana bertsolari txapeldunari?**

Ea noizbait txapela ematen digun.

Esateko modua da; geuk hartu behar dugu.

*Miel Anjel Elustondo*

**MIKO**

izozkiak



**giro atsegina eta lasaia**

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna


ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

**ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ**

## OLLERIETAKO EUSKAL BUSTINGINTZA MUSEOA

# Antzinakoekin amets egiteko parada

**a**tetik sartzeaz batera bizpahiru mende atzera egin nituen. Segundu bakar batean, ordurarteko kamioien hots zakarra desagertu eta non, noiz eta nola bizi nintzen une batez ahaztu zuen. Ezinezkoa neukanaren kontrara, badago Gasteiztik hamar minutura, gure aintzinakoen Euskal Herrian bezalaxe, txoko gozo, bero eta zoragarri bat: Ollerietako Euskal Bustingintza Museoa



**ERREPIDETIK BERTATIK** ere baserriak sekulako itxura ematen du; izugarritzko etxe handia, izugarritzkoa ere etxeari etsekita dagoen labea. Den dena harrizkoa, aintzinan bezala.

Zaila gertatzen zaigu jakitea Arabako

Foru Aldundiak 1992an Blanka Gomez de Seguraren proiektu hura onetsi ez balu, egun Bustingintza Museoa, labeak eta baserriak berak zutik iraungo luketen. Izan ere, Jose Ortiz de Zarateren eskuetan zegoen lanari jarraipena eman nahi izan zion Blankak, bere ikasle zintzoak.

Horretarako, etxea eta labea berrego-

kitu behar izan zituen. Bertan dago Euskal Herriko erromatar erako labe bakarra, monumentu izendatu dutena.

## Gertutik ikusteko aukera

Eusko Jaurlaritzak utzitako euskal buzingintzaren bilduma ederra ez ezik, buzingintza bertatik bertara ikusi eta mirestu ahal izatea duzue lekuak eskaintzen duen xarmarik handiena. Izan ere, buztinezko tresnak nola sortzen dituzten gertutik ikusteko aukera ezin hobea dute hara bisitari doazen guztiek.

Blanka eta bere lankideak gogotik saiatzen dira euskal buzingintza tradizionalaren ereduari jarraitzen. Ereduok museoan bertan dituzte erakusgai eta ikasgai. Ildo horretatik, buzingintza erromatarraren bereizgarri nagusia funtzionalitatea da.



Buztingintza arabiarrak, berriz, apaintzeko helburua du, edergarriak agertzen dituelarik alde eta txoko guztietan. Horrela, gure buztingintzak sukaldeko tresnak, garbitzekoak, garraiatzekoak eta beste sortzen zituen; tresna guztiak erabiliak izateko helburuz gauzatzen zituzten. Salbuesnik bazegoen, oso gutxi baina. Esaterako, tresna erlijiosoek oso apaindura trinkoa zeramaten, musean bertan antzeman daitekeenez.

Halere, atzera begira egin nahi duen saiakera orori bezala, buztingintzari ere kalte egin dio modernitateak, eta oso zaila gertatzen da honez gero, aintzinarren bizitza zehatza errepikatzea. Esate baterako, duela berrogeita hamar urterarte buztina baserriaren alboko lurretatik hartzen bazen, orain ezina gertatzen da hori, urtegia bertan baitago; buztina, beraz, kanpotik ekarri berria dute.

Antzeko gauza gertatzen da piezak egosterakoan. Blankak eta bere laguntzaileek egunero egiten dute lehen bi hilabetero egiten zen lan hura. Arrazoiak asko; bate-tik, labe txiki batean eta pieza gutxi egosterakoan (labe handian milaka pieza egin beharrean), zer edo zer gaizki ateratzen bada, galdutakoa gutxiago da. Horrela, gainera errezagoa da pieza guztiek bero berdina jaso dezaten, eta behar den denbora ere errezago kontrola daiteke. Gasak kendu dio lekua eregai naturalei, eta aintzinarren labea 5 metrotako monumentu bilakatu da.

## Gure arbasoen aztarna

Gure arbasoen bizitzaren berri ematen



digu museoak. Ohitura bitxiak, ura garraiatzeko era bereziak eta beste ezagutu nahi izanez gero, bertara jotzea da biderik zuzenena. Bilduma gaika eta arloka dago banaturik. Horrela antzeman daiteke arlo bakoitzean gertatutako bilakaera, baita elizgizonen eta herri xehearen arteko desberdintasunak ere. Surtako keramika, mahaikoa, eraikuntzetakoa, txerri-hiltzeari buruzkoa eta beste hainbat arlo gure bihotz-gogoen pizgarri izango dira erakusketan barrena goazela. Hau guztia eta ehundaka ezusteko, bitxi-

keria eta, batez ere, gure antzinakoen bizi-moduaren zati batez gozatzeko aukera izan ahal izango duzue Gasteiztik hamar bat kilometrora, nekazaritza-gune eder batean murgilduta.

Ez da erraza, ez, museoan aurki daitezkeen piezak lau hitzetan deskribatzea, ezta ere buztinlarien lan neketsua zehaztasunez zuenganatzea. Izan ere, artea izango da baldin eta publiko batek berau jasotzen badu. Honekin dohaneko propaganda egiten ari naizela, eta bertara joateko gomendio egiten ari natzaizuela uste duzula? Ba, bai neska-mutil! Argi zegok!

Baina ez dut uste arrazoirik falta direnik: aintzinarren euskaldunen tresna eta ohiturak ezagutzeko aukera ezinhobea delako, bai beren eguneroko bizitzan erabiliak ziren tresna ezagutu eta ikusteko, bai berauek zelan egiten ziren jakiteko. Bestetik, hain ezezaguna bezain aberatsa den gure museoaren bilduma ezagutzen hasteko ordua badelako. Eta azkenik, Geu Gasteizen idazten dugun gauza oro zer-baiterako balio dezan nahi dugulako.

*Asier Perez de Karkamo*



## KURTZO BERRIA GASTEIZKO BERTSO ESKOLAN

## anima hadi bertsoetan!



**h**ilabete honetan bertan hasiko da kurtsoa berriro Gasteizko Bertso Eskolan. Aurten, urtero bezala, bere atea irekitzen ditu bertsoetan ikasi nahi dutenentzat. Urriaren 19an izango da aurkezpena. Dena dela, zehaztasun gehiago jaso nahirik, Xabier Ricorengana hurbildu gara. Eta ez ahaztu oraindik izena emateko garaian zaudela. Gainera, bertsoetan ikasten duzun bitartean, euskara hobetzeko eta primeran pasatzeko aukera ezin hobea izango duzu.

**GASTEIZKO BERTSO ESKOLA**

orain 13 urte sortu zen, Euskal Herriko beste leku batzuetako bertso eskolekin batera, hain zuzen. Gasteizko talde bat, Abel Enbeita buru zuela, Gasteizen bertso eskola sortzen saiatu zen eta baita lortu ere. Hasieran 10 edo 15 bat pertsonak osatzen zuten bertso eskola. Gasteizko eskolarekin batera, Laudioko eta Amurrioko bertso eskolak ere atera ziren azalera. Eskolan hiru maila daude: hasierako maila (aurten izena emango dutenena), erdiko maila (urte bat edo eskolan egin dutenena) eta goi maila (aspaldian

hasi zirenean). Bestalde, Xabierrek komentatu digunez, "iaz gazteen talde bat sortu zen, 15 eta 18 urte bitarteko jendeak osatua. Zoritxarrez, taldeak ez zuen aurrera egin, baina aurten talde horri martxa berezi bat ematea garantzitsua dela uste dut".

**Afariak, bertso saioak...**

Normalean talde bakoitzak bi eskola-ordu izaten ditu astean. Eskolak ez ezik, jakina, afariak-eta ere egiten dituzte elkarrekin. "Iaz bertso saio nahiko berezia egin genuen, eskolako jende askok parte

**“Bertsoetan ikastea eta giro euskalduna sortzea ditu eskolak helburu”**

hartu baitzuen". Bestalde, beste hiru edo lau bertso saio antolatzeaz arduratzen dira, baita jaietako bertso saioaz ere. Urtero San Prudentzioko bertso txapelketa eratzeaz gain, bertan parte hartu ere egiten dute. Iaz Bertso Astea egin zuten, "oso interesgarria izan zen, bertso saioaz aparte, beste ekitaldi batzuk ere egin zirelako, bertso afari bat, mahai ingurua, kantaldi bat...".

**GUREA**

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10  
Telefona: 24 59 33

“ **Gasteizko bertsoaritzak bi gune nagusi ditu: Bertso eskola eta Koldo Mitxelena institutua** ”

### Bertsozaletasuna gora

Xabier Ricoren ustez, Gasteizko bertsoaritzak bi gune nagusi ditu: batetik, Bertso Eskola bera, eta bestetik, Koldo Mitxelena institutua. Han bigarren eta hirugarren mailako bertsoaritzak dute hautazko ikasgai. Arrakasta handiko ikasgaia, antza, iaz hirurogei bat ikaslek aukeratu baitzuten. "Horrek zaletasuna sortzen du, eta giro berezia ikasleen artean".

Bertsolari berri asko sortzea ez da eskolaren funtsezko helburua. "Garrantzitsuenak da bertsozaletasuna gora doala, jendea bertso saio batera joaten denean, gero eta gehiago ulertzen duela ikusten da, eta gainera, gero eta gazte gehiago dago bertso saioetan, nahiz eta adin guztietako jendea joan".

Bertsolaritzaren munduan maila bat baino gehiago daude. Xabierren ustez, bertsoak egiten ikatea ez da zaila, behintzat oinarriak ikatea. "Plazara ateratzea beste kontu bat da, eta bertsoan ona izatea askoz ere zailagoa da. Dena dela, ez da gaitasun berezi bat izan behar: hitzegiten jakitea, erritmoaren zentzu pixka bat izatea eta irudimena, baina hori guztia landu egiten da".

### Urriaren 19an aurkezpena

Urriaren 19an arratsaldeko zortzietan Txusta tabernan kurtso berriaren aurkezpena egingo da, eta bertan aurreko urteetako ikasleak nahiz aurten hasi nahi dutenak elkartuko dira. Bertso eskolaren helburua argi dago, bertsoan ikatea eta giro berezi bat sortzea, giro euskaldun bat, alegia. "Ez




da zaila ikatea, gainera ariketa errazen bidez hasten gara. Helburua ez da guztiak bertsoari ateratzea, ondo pasatzea, eta bertsoaren mundua ezagutzeko baizik, bertsoaritzaz gehiago gozatzeko".

Giro euskaldun batean murgiltzeko, euskara lantzeko eta bultzateko aukera ezin hobea dugu bertso eskolan. Beraz, badakizue, bertsoaritzaz gogokoa baduzue eta jende euskaldunarekin ondo pasatu nahi baduzue hurbildu zaitezte urriaren 19an Txusta tabernara arratsaldeko zortzietan. Anima hadi bertsoan!

“ **Urriaren 19an, zortzietan Txusta tabernan, aurkezpena** ”



*Itziar Mtz. de Santos*

**GARNICA** 

**Gorbea kalea 40  
Tfnoa: 24 18 73**

**FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK**

# "Belle, landetako sirena"

## Mikel Garmendiaren eskutik

**e**uskal Herrian aspaldion hainbat idazle berri sortu da. Badirudi horien artetik idazle gazteek osatutako belaunaldi oso bat gainera datorkigula eta ez nolanahikoa. Horietariko bat Mikel Garmendia da, sortzez gipuzkoarra izan arren, aspaldi gasteizartua duguna. Berarekin hitzegiteko aukera izan dugu orain argitaratu berri duen liburua dela eta, "Belle, Landetako Sirena", hain zuzen. Bere lehenengo liburua bada ere, besterik idazteko gogoia ezin izan digu izkutatu.

Belle,  
Landetako sirena

Mikel Garmendia



### MIKEL GARMENDIA UGARTE

Hondarribian jaio zen 1961ean, baina orain dela hamabost urte etorri zen Gasteizera bizi izatera. Itzultzaile lan egiten du Eusko Legebiltzarrean. Itzultzeko duen erraztasun hori dela medio, liburuen itzulpenak baino ez du plazaratu orain arte. Argitaratu berri duen liburuari ekin aurretik, bilduma bereko beste bi itzuli ditu, "Road Dahlen Super Azeri" eta "Ole Lund Kike garden Otto errinozerontea", hain zuzen. "Hori izan da liburua idaztera bultzatu nauen arra-

zoirik nagusiena". Bere esanetan, itzulpen bidez, haurren mundua ia ia oraintxe deskubritu duela adierazi digu eta, "egia esanda, ikaragarri gustatu zait". Bestalde, txikidanik gustatzen zitzaion idaztea eta hainbat sari irabazi zuen ikastolan zegoenean.

### Haur literatura

"Belle, Landetako Sirena" izenburua du berak idatzitako lehenengo liburu honek. Haur literaturan koka daitekeen liburua

da, nahiz eta, berak dioen bezala, edozein adinetako pertsonak irakur dezaketen liburua izan. Liburua hamar urtetik aurrerakoentzako da, bere ustez. "Baina, eda-deak baino gehiago izpirituak balio du. Ez dago hain garbi haurra zer den eta zer ez den zehazteko muga".

Mikelek haur literatura itzultzen aurkitu du bere burua. Mundu hori ikaragarri gustatu zaio. Horretan zenbat eta gehiago sartu gero eta atseginago du. "Engantxatu egiten du".

deportivos

**AZOKA**

kirolgaiak

Zure kirol-oinetakoak

Gorbea 34      tfnoa: 24 75 04  
Gorbea 27      tfnoa: 24 22 05      Fax: 22 07 19  
Ariznabarra 17      tfnoa: 14 71 33

G

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea  
Tfno: 13 18 55  
01005 - GASTEIZ

“ **Euskal literaturak oso osasun ona du, pauso handiak eman baitira urte hauetan** ”

Bernardo Atxagaren “Xolak badu lehoien berri” liburua du gogokoen. “Liburu horrek txundituta utzi nau”. Bestalde, betidanik gustatu zaizkio “Printze Txikia” eta “Pinotxo”. “Mitoetan oso klasikoa naiz, Walt Disneyren pelikulak ikaragarri gustatzen zaizkit. Nik uste dut Pinotxo, esaterako, inoiz hilko ez den ipuina dela eta zaila ikusten dut hori bezalako ipuinik idaztea”. Munduko literaturan “El Quijote”k daukan lekua izan dezake Pinotxok haur literaturan, bere aburuz.

Bestalde, idazle berri asko eta oso onak sortzen ari direla agertu digu, “gazteen belaunaldi oso ona datorrela”, gaineratu duelarik.

### Sentimenduen mundua

Liburuaren mezuaz galde eginik, hori kontu arriskutsu xamarra dela erantzun digu. Askotan mezu bat ematen saiatzen garenean, obra baten xarma hondatu baitezakegu”. Liburuan, bere esanetan, mezu bat baino gehiago dago. “Baina ez dute zerikusirik aspaldiko literaturako mezuekin. Literatura zaharra aztertzen badugu, batez ere obra moralak idazten zirela ohartuko gara. Denek zuten moraleja”. Mikelek uste du hori gaudituta dagoela eta oraingo obretan bestelako balore solte batzuk zabaltzen direla, esate baterako, irakurletasuna, abenturatasuna...

Bere ustez, idazle baten mundua oso sentikorra da, sentimenduz betea. Sentimenduek pisu handia dute mundu horretan, arrazoiek, kalkuluek eta negozioek baino gehiago.

Gaur egun idazlea izatea gogorra dela esan du, “dena informatuta, kalkulatuta



dagoelako eta idazlea hortik kanpo dagoen pertsona apasionatu bat da”.

Bere esanetan, “idazle izateko ez da gaitasun berezirik izan behar, baina gaitasun minimo bat bai, jakina. Gogoak behar dira batez ere: Gauzak kontatzeko gogoak eta batzutan beharra ere bai”. “Sentimenduei kasu egin eta horiek azaldu. Ez da gaitasun kontua, sentimendu kontua baizik”.

### Euskal literatura

Euskaraz idaztea garrantzitsua, beharrezkoa eta polita da Mikelen ustez. Ez du bere burua ikusten gaztelaniaz idazten. Bai, ordea, gaztelaniara itzultzen, “hori guztiz beharrezkoa baita hemengo produktuen berri emateko”. Baina betidanik sortu du gure hizkuntzaz.

Euskal Herrian jendeak liburu asko erosten dituela pentsatzen du, baina ez dira guztiak irakurtzen. Nota ematekotan euskaldun irakurleei, bost bana emango lieke, “jendeak ez baitu ez asko ez gutxi irakurtzen”.

Euskal literaturak osasun oso ona dauka pentsatzen du. “Oso idazle onak daude, eta gainera, itzulpen literario oso onak

“ **El Quijotek daukan lekua izan dezake Pinotxok haur literaturan** ”

egiten dira eta hau garai batean ezin pentsatzukoa zen”. Euskal literaturari dago-kionez, “pauso handiak eman dira azkeneko urte hauetan, eta horrela prosa eredu bat finkatu da”. Bestalde, jadanik euskara bera ez da eragozpen bat, gure tresna finkatu xamarra dugu, eta horregatik hasi gaitezke hitzegiten estiloaz, argumentuez...”

Hizkuntza finkatua omen dugu eta hori bentaja bat da. Euskara bultzatzeko modu ezin hobetzat jotzen ditu liburuak. Izan ere, “liburuak izan dute, dute, eta izango dute izugarriko eragina euskal hizkuntzaren”.

Bukatzeke, hauxe adierazi digu: “Liburuak idaztea zaletasun bat da niretzat, oso ondo pasatzeko modu bat. Irakurtzea idaztea bezainbeste gustatzen zait, irakurtzea nolabait idaztea ere bade-lako”.

*Susana Calleja*



**ARTEPAN**  
Artisau  
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

**Ardatz** itzulpen eta  
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

GUSTUAK GUSTU, MAILA HANDIKO ANTZEZLANAK

# XX urteko antzerkia laburbiltzeko ahalegina



**a**ntzerki Jaialdia urteko kultur zitarririk garrantzitsuenetariko bat da gasteiztar askorentzat. Udazkenarekin batera, hutsik egin gabe, urtero etorri ohi zaigu antzerkialdia. Haren meriturik handiena hauxe da: urte urte gorabehera handirik ez izatea kalitateari dagokionez. Adituek diotenez, Gasteizen ez dago antzokitik haserre irtetzeko arrisku handirik, gustuak gustu, antzezleen maila ziurtatuta baitago.

**GASTEIZKO ANTZERKI** Jaialdiak hogeitau urte bete ditu aurten. Urterena behar bezala ospatzeko, aurreko urteetan parte hartutako talderik garrantzitsuenek berriro ere eskuhartuko dute aurtengoan. Hogeitau urte gehiegi dira arrakasta lortu duten talde guztiak hona ekarri ahal izateko. Etorriko direnek, ordea, ondo baino hobeto ordezkatzeko dute Gasteizko Antzerkialdiak egin duen bide luzea.

Gure hiriko kultur ekitaldirik nagusienetarikoa dugu Antzerkialdia. Gero eta abonua gehiago saltzen da; horra gasteiztarren aldetiko harrera beroaren erakusgarria. Antolatzaileei ez zaie arrazoirik

falta harro egoteko. Ikuslerik gehienak hemengoak izatea ere pozgarri zaie. Ez da kanpoko jendearentzat edota kritikozentzat pentsatutako jaialdia. Eta, orain arte, gasteiztarrek ondo erantzun dute.

Hogeitau urteren ondoren, inork gutxi du argi zeintzuk eta nolako antzeppenak ditu gustokoen antzerkiaren hemengo jarraitzaileek. Ezin omen da ikusle mota bakar bati buruz hitzik egin, ikusle beste gustu dago eta. Hori dela eta, ahal denik eta egitaraurik zabalena prestatu dute antolatzaileek: antzerki klasikoa, esperimentalak, ballet-a eta beste. Hala ere, eta ikusle guztien gogoak asetzeko ezinezkoak denez, denen gustoko antzeppenik eman

partez, ikuskizunak gehiago ala gutxiago gustatu, goi mailako antzezlanak eskaintzen saiatuko dira.

## Jaialdi "merkea"

Antzerkialdiaren aurtengo edizioak 55 milioi pezetako aurrekontua du. Beste jaialdi batzuekin alderatuz gero, hemengo jaialdi merkea dela ematen du. Horrek azalpen erraza du: antolatzaileek adierazi digutenez, Gasteizera etortzen diren aktoreak komunikabideen arreta erakartzera baino taula gainean lan egitera etortzen dira. Horrek kostuak izugarri merketzen ditu. Antolatzaileek konparaketa baten bidez azaldu dute hori:

**IRUSTA TABERNA**  
poteo eta pintxoak  
ESPEZIALITATEA:  
Patata tortila • Otartekoak  
Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 23 19 33  
GASTEIZ

**UDABERRIA**  
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33  
GASTEIZ



Donostiako zinemaldiaren aurrekontuaren % 50 baino gehiago "izarrak" ekar-tzeko erabiltzen da. Gasteizen ez da horrelakorik gertatzen eta gainera, aldeko beste zerbait ere badugu hemen: jaialdiko zuzendaritza-taldea Udaleko teknikariek osaturik egotea, antzerkialdia prestatuagatik, hilabetero jasotzen duten soldata berbera kobratzen baitute Udaleko langileek irail-urrietan ere.

Aurrekontuko 55 milioiak, beraz, antzerkiari dagozkion gastu hutsetan xahutzen dira, bazterretako bideetan galdu gabe.

## Principal antzokitik at

Principal antzokia jaialdiko beste pertsonaia bat dela esan daiteke. Jaialdiak eta antzokiak ezin banatuzko bikotea osatzen dute. Hala ere, antzezlan batzuei askoz etekin gutxiago aterako litzaieke horrenbeste jende biltzen duen gisa horretako toki batean. Beñat Etxepare, Ipararriaga, Aranako... aretoak askoz egokiagoak dira ikusleekiko harreman zuzena eta nolabaiteko konplizidadea eskatzen dituzten lanak antzezteko. Hori dela eta, OFF saila sortu da jaialdiaren barruan.

Haurren atalean nahiz OFF sailean bildutako lanak egitarau nagusiko lanekin pareka daitezke kalitateari dagokionez. Egitarau nagusitik kanpo ageri dira gehiago nabarmentzeko eta ez jaialdiak eskatzen duen maila ez dutelako ematen.

OFF saila ez da gazteentzako propio sortutako saila, baina horrelakoxe adinekoak izaten dira antzerki alai, berri eta ireki hori ikustera joaten direnak.

Haurren atala eta OFF izeneko indartzea gasteiztarron antzerki-zaletasuna bermatzea da nolabait. Haurrei eta gazteei zuzendutako sailak ditugu horiek eta antzerkiaren munduarekin harremanetan hasteko bide egoki izan daitezke.

## Hemengo uztaren ordezkari-tza

"Paraíso", "Latirili", "Miguel García de Cortazar"... dira Gasteizen egiten den antzerkiaren erakusleak. Jaialdian ikus eta gozagai izango ditugu. "Paraíso" Estatuko haur antzerkigintzako talderik onenatarikoa da eta bere azken lana estreinatuko du urriko azken igandean.

"Latirili"k antzerki taldeak "La pande-reta, simposium de variedades" antzeztuko du OFF sailean. Atal berean ihardungo du Miguel García de Cortazarrek, bere jaioterrian baino Mexiko aldean ezagunagoa den artista interesgarriak. Berak antzeztuko duen "Treitairén" lana ez ikustea pekatu larria omen dela diote horren berri dutenek.

“ **TANTAKA eta MARKELIÑ antzerki taldeek euskarazko lanak aurkeztuko dituzte** ”

Jaialdian parte hartuko duen arabarren ordezkari-tza ona izango da. Euskarazko lanak aurkitzeko, aldiz, zailtasunak izan dituztela adierazi digute antolatzaileek.

Udalaren hilabeteroko programazioak euskarazko bi antzezlan bildu ohi ditu beti, hutsik egin gabe: bata, helduentzako eta bestea, haurrentzako. Hori dela eta, Euskal Herriko eskenatokietatik ibiltzen diren lanik gehienak Gasteizen ikusteko aukera izaten da inon baino lehen ("Ernesto deitzearen garrantzia", ...). Jaialdian euskarazko lan gutxi ikusgai izango badira ere, ekar zitezkeen guztiak egongo dira, antolatzaileen esanetan.

"Tantaka" eta "Markeliñ" antzerki taldeek aurkeztuko dituzten lanek euskara eta gaztelarazko bertsioak dituzten arren, Gasteizen euskarazkoa bakarrik ikusi ahal izango dugu. Horrelako kasuetan, erosotasunaren izenean datozen zalan-tzek ez dute tokirik izango oraingoan. Horrekin antzerkia euskaraz ikusteko ohitura bultzatzeko pausoak eman nahi ditu jaialdiak.

*Leire Lopez de Aberasturi*



**zure euskal LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

**berrikoia**

kafetegia  
taberna

**ALDAPA**

SAN VICENTE  
aldapa

GASTEIZ

ITZULKA

Diego Martínez de Alava, 7 3. esk  
Tfnoa. 27 44 26  
01004 GASTEIZ

# mostrongotxoak: "geu ere kazetari"



↑

xori txiki batek esan digu gure txikitxoak oso kazetari trebe eta azkarrak direla. Baina ez hori bakarrik. Aldizkari-lehiaketa batean parte hartu eta elkarrizketa, erreportaia, artikulua eta idazlan interesgarri eta dibertigarriak egiten dituztela ere adierazi digu gure txoritxoak. Guk albistea frogatu nahi izan dugu eta Abetxuko ikastolara joan gara hori egia ote den jakitera. Bertan honako hau galdetu diegu

*Gustokoa duzue aldizkari-lehiaketan parte hartzea?*

**BAI ZEREN** horrela nire aitak eta amak gure aldizkari ikusteko aukera izango baitute eta bestalde kazetari izateko aukera daukat. Baina garrantzitsuena denok parte hartzea da, bestela aldizkaria ez baita guztiona izango.

*Asier. 7.maila*

**OSO GUSTORA** hartzen dut parte lehiaketetan. Lanak lagunekin batera egin behar dituzu eta bitartean gauza onak gertatzen zaizkizu. Gainera bukatzerakoan konturatzen zara lehen zenekiena baino gehiago dakizula.

*Beatriz. 12 urte*

**BAI,** oso ondo pasatzen dut lagunekin artikulua egiten, baina baita bakarrik ari naizenean ere gustora egiten dut neure ideia delako. Ikasgelan lana zure kabuz egitea oso polita da. Sariak ere motibagarriak dira.

*Eduardo. 13 urte*

**OSO GUSTORA** egiten ditut aldizkari artikulua. Ondo pasatzen duzu eta bitartean ikasten duzu. Niri adibidez entziklopediekin aritzea asko gustatzen zait eta baita gero ordenadorez idaztea ere. Gainera guk gogo haundiz egiten dugu lana eta saria irabaziz gero guretzat hobe.

*Elena. 12 urte*

**BAI,** oso gustora egoten naiz horrelako gauzak egiten ditudan bitartean eta aldizkari batean agertzen bada askoz hobe. Ez naiz inoiz aldizkari batean agertu baina oso polita izan behar du.

*Estibaliz. 6. maila*

**NIRE USTEZ** aldizkari batean lan egitea oso onuragarria da. Gu bezalako jende gaztearentzat dibertigarria da horrelako proiektuetan parte hartzea. Niri behintzat ez zait aspergarria iruditzen. Ekintza honek zerbaiten parte izatea sentiarazten gaitu.

*Ruben. 8. maila*

bar • restaurante  
albéniz

**PORTAL DEL REY 9**

**GASTEIZ**

**ELEKTRIZITATEA**

muntaiak elektrikoko automatismoak girozko musika eta segurtasuna

**GURIA**

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08  
95 Faxa: 943 10 85 47      20600 EIBAR

intrales

**BEIRATE ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tf: (945) 14 64 10  
GASTEIZ

**MIKEL DELIKA**

# Prentsa ikasgelan

**MOTA GUZTIETAKO** lehiaketak atsegin ditut eta aldizkari-lehiaketan ere parte hartzea gustatuko litzaidake. Ez naiz inoiz Egunkariako txapelketan izan baina zortzigarren mailako lagunek esan didate oso ondo pasatzen dela eta sari onak daudela.

*Jose M<sup>o</sup> 7. maila*

**ORDENAGAILUA** oso ondo dago eta naturari buruz, animaliei buruz eta batez ere kirolari buruz idaztea atsegin dut. Lehiaketak gustatzen zaizkit.

*Juanma 12 urte*

**HORRELAKO** lehiaketetan parte hartzea oso gustokoa dut. Idaztea ere atsegin dut eta oso ondo pasatzen dut. Nik neure artikulua asmatzen ditut. Gehienetan naturarekin eta kulturarekin erlazionatuak dauden artikulua idazten ditut: hartzak, EPA, Arabako lautada, eta liburuen fitxa teknikoak. Horiek iragan ikasturteko aldizkariako artikulua batzuk dira. Nire helburua sari nagusia lortzea da, horretan ahalegin guztiak batuz eta klasean lan eginez.

*Alvaro 13 urte*

**NI LASTERKETA** askotan egon naiz, baina aldizkari lehiaketa batean ez naiz inoiz egon. Niri gustatuko litzaidake parte hartzea eta irabaztea. Lagunek esan didate oso polita dela, entretenigarria dela, sariak daudela eta ondo pasatzen duzula.

*Jacob 6. maila*



## IAZKO IKASTURTEAN

Euskaldunon Egunkariak eskoletako euskarazko aldizkarietako saria antolatu zuen lehen aldiz. Lehiaketa horren helburua umeak prentsara hurbiltzea zen. Hau da, ikasleak kazetari bihurtu, gero prentsa-irakurle izan daitezen.

Ikasleen erantzunak ezustean harrapatu zituen antolatzaileak guztira 200 aldizkari inguru jaso baitzituzten. Horien artean, nola ez, baziren Arabako ikastetxeetatik bidalitako aldizkariak eta aipagarria da Gasteizko Olabide ikastolako Istinga aldizkaria azkenera arte onenen artean egon zela. Azkenean epaimahaiak bigarren postua eman zion.

Jon Santos Olabide ikastolako irakaslearen iritziz, horrelako egitasmoak gehiago bultzatu beharko lirateke ikasgelan, hizkuntza lantzeko aukera haundiak ematen dituelako.

Jon Santosek adierazi digunez, beraiek lehendik ere bazuten aldizkariak egiteko ohitura. Bere ustez, horrelako lanak eginez ikasleen motibazioa pizten da eta egindako lanari balio haundiagoa ematen zaio. Horrez gain, Abetxuko ikastolako ikasleek dioten bezala lana gustora egin eta gehiago ikasten badute, orduan eta hobe.

*Xabier Zabaleta*



## GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

### OLARIZU

Jose Uruñuela  
Tfnoa: 13 49 18

Auzoko pintxorik onenak

### ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia  
Tfnoa: 28 33 05

Poteo eta giro ona

### ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6  
23 31 92

Eguneko menua

# Gazalbide: auzo txikia beste handiago baten barruan



**O**raindik gogoratzen dut txikitan auzo hau zeharkatu behar izaten genuela ikastetxera joateko. Oso leku ederra eta ikusgarria da, baita aproposa ere, bide osoan zehar jolasten ibiltzeko. Berdegunez eta parkez beterik; errepidea auzo kanpo doa. Hitz batean, auzo hau oso egokia da umeentzat ez baitu inolako arriskurik. Hainbat urte pasata, haraxe abiatu naiz berriro bere gaur egungo ezaugarriak ezagutzeko eta zuei jakinarazteko azmoz. Bueltatxo bat eman orduko konturatu gara ez dela aldaketa askorik somatzen. Txagorribide elkarteko bi partaideekin hizketan egon eta gero, ordea, zinez esan dezakegu Gazalbide bere heldutasunera hurbiltzen ari dela.

**LEHENENGO ETA BEHIN**, azalduko dugu zer den Gazalbide, jende askok ez baitaki non dagoen ere. Teorian, Txagorribidea izango litzateke auzo osoa. Auzo honen barruan aurkitzen dugu batetik, Txagorritxu (ikus uztaileko alea), eta bestetik, Gazalbide. Zehatzago esanda, Txagorritxu auzoko iparraldeko eremua dugu Gazalbide. Mugak Don Vela, Jose Atxotegi, Ecuador eta Honduras kaleetan ditu. Auzo txiki bat beste auzo haundiagoaren barruan. Eraikinak auzotik kanpo daude; Musika Eskolan hasten delarik, biribil erdi bat osatzen dute etxe guztiek. Bi motatakoak ditugu bertako eraikinak: batetik, bost dorre haundi, lau alde batean eta bestea beste aldean (gaztelu baten itxura duena); bestetik, dorre txikiago batzuk (Ingurubidearen parean), besteen barruan daudenak.

Etxeon barru aldean, ordea, parkeak, lorategiak, Luis Dorado ikastetxea eta merkataritza-zentro bat daude.

Gazalbide ez da hiriko beste auzoak bezalakoa. Etxeak eraikin pribatuak dira, eta beheko aldeetan ez dute dendarik. Merkataritza-zentroa auzoaren erdian dago: duela urte batzuk dendariz josita zegoen; gaur egun, ordea, bulegoa eta zenbait elkarte besterik ez daude, "hau lotarako auzoa dugu, jendeak hemen baino hiriaren beste leku batzuetan egiten du bizitza", azaldu du Begoña Txagorribidea auzo-elkarteko partaideak.

ARTE GALERIA  
LOURDES UGARABE  
Los Arquillos kalea, 7  
Tfnoa: (945) 146261 • Fax: (945) 143509  
01001 GASTEIZ



e  
g  
u  
n  
e  
k  
o  
m  
e  
n  
u  
a

restaurante • jantoki  
**DOS HERMANOS**  
madre vedruna, 10 • gasteiz  
1 3 29 34 ☎ 13 44 46

Oso auzo lasaia eta eroso, horiexek dira hemen bizitzaren onurak, "ez dago auzoa zeharkatzen duen errepiderik, gainera, parke eta berdegune asko ditugu, oso auzo eroso da bizitzeko", adierazi digute ezau-garri buruz galdeturik. Baina oso aldeko ez diren baldintzak ere badaude "hain lasaia da auzo ez baitago mugimendurik, ez kafetegirik, ez tabernarik, baina orain zentro komertzialean oso mugimendu gutxi dago. Horren ondorioz, jendeak ez du ezertan parte hartzen auzoan, "jendea ez da mugitzen, horrexegatik, bada, ez da gure auzoan mugimendu haundirik sortu. Horixe da gaur egungo dugun arazo larrienetariko bat". Jendeak ez du hartzen auzo bere osotasunean, eta etxe edo eraikin guztietan auzo-elkarteak daude, "gu saiatzen gara denak batzen Txagorribidearen bidez lan guztiari elkarrekin aurre egiteko". Dena den, azken urteotan nabaritu egin da aldaketaren bat, jende gehiago hurbiltzen da elkartearen lokaleetara.

Bestalde, Gazalbidearen aurpegia laister aldatuko da, Udala eraikitzen ari den Boulevard berriari esker, "ez dakigu horrek zer ekarriko dion auzoari, baina helburua izan daiteke Lakuarekiko zatiketa pixka bat gutxitzea. Dena den, zatiketa horrek beti iraungo du, hiriaren hegoaldean gertatzen den bezala".

### Txagorribidea

Hauxe da auzo-elkartea, ez bakarrik Gazalbidekoa, Txagorritxu osokoa baizik "guk gure ekintzak auzo osora zuzentzen ditugu, gure lokalak Gazalbide egon arren". Elkartea horren barruan ekintza sozialak egiten dira gehien bat. Horrela, abesbatzak, sevillanak, dantzak, bestelako ikastaroak (euskerak, ingelesak), lantegiak eta antzeko ekintzak burutzen dituzte, "gehien bat etxeko andre eta umeei zuzenduta daude, eta oso harrera ona izan dute".

Euskara ikastaroak ere antolatzen dituzte, baina azken boladan jendea ez doa, "beste lekuetan ikasi nahiago baitute".



Hala ere, auzoan handitu egin da euskaren erabilera, lehen baino gehiago entzuten da, nahiz eta oraindik eguneroko gauza ez izan. Elkartea orain dela hogei bat urte sortu zen, beste elkartearen zatiketa gertatu ondoren, eta egiten dutena jendeari zuzenduta dago momentuz, "ezin dugu gauza asko eskatu, jendea ez baita mugitzen, kexak eta halako gauzak jendeak bere kabuz egiten ditu". Duela urte batzuk jaiak ere antolatzen zituzten, baina hainbat arazo zirela medio, erabaki zuten bertan behera uztea ospakizunok.

Hara bildutakoen iritzia: Gazalbideko gauzarik hoberena auzoaren independentzia da; txarrena, berriz, ez dagoela auzokideen arteko elkarbizitarik".

David Alvez.

# Zein bere lekuan

**EUSKARA** gero eta hobea egitea denon eginkizuna dela sinesturik, sail berri hau jarri dugu abian, euskaldun guztion eta euskararen beraren hobe beharrez. Zutabe honetan hilero-hilero agertuko dizkizuegu euskaraz idatziz nahiz ahoz egin ohi ditugun oker batzuk, Euskaltzaindiaren azken gomendioetariko batzuekin batera.

Oker batzuk:

Gero etortzen zara nire etxera? (gaizki)

Gero etorriko zara nire etxera?

Lagun bat daukat Donostian bizi dela.

(gaizki)

Lagun bat daukat Donostian bizi dena.

Ukatu du egia denik. (gaizki)

Ukatu egin du egia dela.

Gizon desberdinak ikusi zituen. Gizon bat baino gehiago ikusi zituela esan nahi du, "gizon desberdinak" "diferentes hombres"en kalko okerra besterik ez delako.

Gizon batzuk ikusi zituen.

## Euskaltzaindiaren gomendioak:

"Hori eta" / "hori edo"

Egitura agerikoa eta antzematen erraza bada, bereiz idatziko dira; perpaus konplexuetan, aukeran izango du idazleak juntagailuaren aurrean marratxo ipintzea, lagungarria bada.

Tabernara joan ginen eta lagunak(-) eta etorri ziren etxera. Kasu honetan, esaterako, marraz eta bereiz idatz daiteke.

Diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea

- Au: bokalez amaituak bezala deklinatuko dira.

Laurako, lauak, barauan, enparauko...

Gau hitzak, ordea, deklinabide berezia du.

Koldo Biguri

**TXUSTA**  
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea  
GASTEIZ



**IRUNA**  
TABERNA  
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52  
GASTEIZ



jo ta ke

**TXAPELARRI**  
TABERNA

kutxilleria 83

# Badaiotz kirol taldea: neskek sokatik tiraka



**S**ei hilabete igaro dira Munduko Sokatira Txapelketa izan zenetik. Bertan, Euskal Herriko ordezkarien artean, gure hiriko neska-mutilez osatutako talde bat izan genuen, Badaiotz izenekoa, hain zuzen ere. Txapela, tamalez, ez zen hemen geratu, baina neskek argi eta garbi erakutsi ziguten badakitela ondo tiratzen.

**LOKAL EGOKIA** lortu bezain laster entrenamendua hasi zen eta, horrekin batera, taldearen sendotasuna etorri zen. Hurrengo urteetan taldeko mutilek Badaiotz izena ospetsu egin zuten Arabako zein Euskal Herriko txapelketetan. Neskek ez zuten atzerago geratu nahi izan eta, mutilen urratsei jarraiki, leku aipagarri bat bereganatu zuten Euskadiko plaza guztietan. Arabako txapeldunak eta Euskal Herriko talde onenetariko bat izateak aurrerantz bultzatu ditu Badaiotzeko hamar neskek.

Denboraldia hasteaz bat aurpegi berriak

ageri dira. Baina aurrean ere denen artean maila onari eusten saiatuko dira. Guztiekin izan ginen hizketan. *Zein izan zen taldea sortzeko izan zenuen motibaziorik nagusia?*

Horretarako gogoia izatea eta gustora egotea herri kiroletan dihardugula. Sei urte hauetan zehar denetarik gertatu zaigu, ona eta txarra. Halere, aurrera goaz gustora sentitzen garelako.

*Zenbat aldiz entzun behar izan duzue sokatira ez dela emakumezkoen kirola?*

Askotan, gehiegitan entzun dugu hori. Gaur bai, bihar ere bai, baina ez dugu kontuan hartzen. Dena den, hemen gaude



HegoAmerikako jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoian ertzean Tfnoa: 25 03 52

**AMILAMIA**

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17  
tfnoa: 27 40 09  
GASTEIZ

**Xabier**

**taberna**

musika ona  
eta giro  
ezinhobea **Kutxileria 23**

eta hemen jarraituko dugu.

**Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?**

Euskadiko nahiz Munduko txapelketetan parte hartzea, eta ahal bada, Bizkaiko Gaztedi taldeari irabaztea. Horiexek dira onenak, leku guztietan irabazten dutelako. Haien kontrako tiraldi batean garaile ateratzea oso pozgarria izango litzateke guretzat.

**Baina, horretarako entrenamenduak sarriago eta gogorrago egin beharko dituzue.**

Bai. Aurten neska berriak ditugu taldean, gainera astean bitan ordu t'erdi ematen dugu entrenatzen. Pixkanaka-pixkanaka gorantza goaz. Tiraldietan ikusiko dugu nola gauden.

**Horrela jarraituz gero, laster irabaziko diezue mutilei.**

Ez, alde nabarmena dago oraindik indarrari eta erresistentziari dagokienez, baina banan-banan érraz irabaziko genieke.

**Udaberrian Gasteizen izandako Munduko Txapelketan parte hartu zenuten. Zeintzuk izan ziren, zuen ustez, bertan gertatutako gauzarik onena eta txarrena?**

Onena, giroa. ETB han izan zen eta jende askok ikusi ahal izan zuen. Taldeek sorturiko giroa oso atsegina izan zen, polita benetan. Txarrena, nahiz eta denok Euskal Herrikoak izan, Espainiako selekzioaren izenpean agertzea.

**Eta dirulaguntzez zer?**

Ez dago horrelakorik. Ia-ia ez digu inork laguntzen. Txapelketa batean parte hartuz gero, zerbait jasotzen dugu, baina ez pentsa, oso gutxi. Erakustaldiak egin



behar ditugu, herriko jaietan batez ere, baina horiek ere urriak izaten dira.

**Eta nolako ikusleak dituzue?**

Urriak, baina hori bai, oso zintzoak. Tiraldi guztietara joan ohi dira animatzen. Adituak ere badira, oso.

**Sokatira ez ezik, beste herri kiroliek ere egiten al duzue?**

Bai, badira trontzea, txingak, ingudea edota fardoa ibiltzen dutenak ere.

**Zer esango zenukete zuen taldean izena ematea bururatu zaion neska bati?**

Baietz. Oso dibertigarria dela, jatorrak garela (hori guk geuk egiazta dezakegu), taldeko giroa primerakoa dela...

**Eta non aurkitu zaitzakete taldean hasi nahi izanez gero?**

Asteartetan eta ostegunetan, zortziak aldera, Landazuri kiroldegian. Hantxe galdetu dezaten eta esango diete non. Ongi etorriak!!

*Joxemari-Txabi Arnal Gil*

**BESTE PREZIOEKIN EZER IKUSTEKORIK EZ**



450 saltegi baino gehiago dituen Estatuko lehen erakunde optikoak bakarrik eskain diezazkizuke betaurreko bildumarik eksklusiboan 2.850 pezetatik aurrera. **Eta garantia guztiekin, jakina.**

**MENDIA OPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
MULTIOPTICAS  
**ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.**

Andre Maria Plaza Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
GASTEIZ

DENBORALDI BERRIA, TALDE BERRIA

# Deportivo Alaves jokalaririk banan bana



**k**omunikabideetan egunero dugu Glorioso hizpide. Hori dela eta, geuk ere Deportivo Alaves-en joan-etorriak hona bildu nahi izan ditugu, modu berezi batez baina. Hurrengo lerrootan Mendizorrotzako jokalariei buruzko bitxikeriak eta zurrumurruak zuen etxeetara eramaten saiatuko gara.

euskaltegia eta barnetegiak

zinemak 100 urte,  
euskarak milaka!



**Euskal Herria**  
jatorrizko bertsioan!

izena eman

**æek<sup>n</sup>**



**Ederki**

argazki estudioa  
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN  
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak  
Estudioko argazkiak  
Bideo industriala  
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



**1. ARMANDO** (atezaina): hondartzatik hurbil bizi da, Sopelakoa baita. Taldeko guapoena omen denez, "Bolli" du izengoitia. Begi urdin-urdinak ditu.

**2. GORRIARAN**

(atzelaria): hitz-jario ederra du Muskizen jaiotako bizkaitar honek. Punta-puntako jokalaria izan arren, unibertsitatean ere ibilia da. Izan ere, futbolaria eta ekonomilaria dugu Antonio Gorriaran.

**3. AITOR ARREGI**

(atzelaria): Aitor euskalduna dugu; gehien gustatzen zaion hitza "gudaria" da. Deportivo Alaves-eko Toni jokalaria ohiaren arrebarekin ezkontuta dago. Sustraiak Gipuzkoan ditu eta bere aita Elkano Getariako jatetxeko nagusia da.

**4. VILLANOVA** (atzelaria):

bere osaba Manuel Villanova dugu. Zaragoza taldeko atezain eta entrenatzaile ohia. Lehen Mailako hainbat taldetan jokatu du, Zaragoza eta Logroñesen, hain zuzen.

**5. MATXON** (atzelaria):

Portugaleten jaioa, Bizkaiko futbolaren harrobitik irten zen. Handik Galizara, eta orain Deportivo Alaves-en, noski.

**6. CUDI** (atzelaria - erdilaria):

Almeriatik Gasteizera etorri da. Futbolari asturiar askok bezalaxe, honek ere izengoitia du. Horra hor, erakusgarri gisa, Gijongo Sporting-en hazitako Quini edota Juanele.

**7. MORENO** (atzelaria -

erdilaria): Antonio Moreno errioxarra da. Aurrendenboraldian Deportivo Alavesek esan zion beste talde bat aurkitu beharko zuela, baina egun hamaikakoan sartzen da. Horrelakoxea da futbola! Bestalde, ile kizkur ederra du Morenok.

**8. JOSEBA AGIRRE**

(erdilaria): taldeko jokalaririk zaharrenetariko bat da. Beti zelai erdian jokatzen du, aurrerago, atzerago, baina beti erdian. Errege Kopako final bat zer den ere badaki. Lezamatik irten zenez, Athleticzalea, noski.

**9. SERRANO** (aurrelaria):

Codinarekin batera, "Zipi - Zape" bikote ospetsua osatzen du. Español taldeak joaten utzi zion ez omen zelako Camachoren gustokoa. Joan den urteko play-off-ean sei gol sartu zituen. Gasteizen bizi da andregaiarekin.

**10. BERMUDEZ**

(aurrelaria): ondo ezagutzen dutenek diote jatorrena dela. Oso trebea da bi hankekin. 24 urte ditu eta Kanariar irletan jaio zen.

**11. CODINA** (aurrelaria):

jokalaririk bajuena. Aurten Deportivo Alavesen jokatzen badu ere, Español taldekoa da oraindik. Oso ona eta azkarra.

**12. KUZNETSOV**

(erdilaria): Errusiako selekzioan 45 aldiz jokatu du. Errusiatik Estatu espainiarrera etorri zen lehenengoetarikoa dugu Kuznetsov. Bere herrialdeko selekzioiko arduradunarekin haserretu zenez, egun ez du Errusiako selekzioan parte hartzen.



3. Aitor Arregi



4. Villanova



1. Armando



5. Matxon



2. Gorriaran



6. Cudi

**KIROLDEGIA**  
**CENTRO DEPORTIVO**  
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36  
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m<sup>2</sup>) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20mx11m) • Saski baloi indoor pista • 800 m<sup>2</sup>-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia) • Aerobik-gela (300 m<sup>2</sup>) • Mantu-gimnasiarako gela • Tatami-gela (250 m<sup>2</sup>) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak • Badminton-pista

**ETA LASTER: Padel-pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoa,...**



7. Moreno



11. Codina

**13. TITO** (atezaina): ez dakigu sorginkerietan sinesten duen, baina da oso suprestiziosoa Deportivo Alaveseko atezain titularra. Sorginak alde batera utzi behar izan ditu, 13 zenbakia egokitu zaio eta.

**14. PINEDA** (aurrelaria): Frantzian jaioa. Gasteizera heldu bezain laster, Zeledonon, Iñaki Landaren lehengusua zela jakinarazi zuen. 16 urte zituenean, Eric Cantona jokalaria ospetsuarekin batera, Alaves-i eskaini zion bere burua.

**15. ELOY** (erdilaria): jokalaria azkarra. Ez da altua, ezta pisu handikoa ere. Clemente Español taldeko entrenatzailea zenean, UEFA tapelketan parte hartu zuen.

**16. VICTOR** (erdilaria): Gloriosoren "tankea" da. Oso gizon indartsua. Joan den urtean Compostela taldea Real Madrid-en kontra neurtu zenean Bernabeu

zelaian, hantxe izan zen Victor.

**17. IVAN** (atzelaria): gazteena. Eladio zelaian ez denean, kapitaina dugu. Irulegi Deportivo Alaveseko entrenatzaile ohia jo eta ke aritu da fitxatu nahiean, eta zorionez, alferrik. Etorkizun handiko jokalaria.

**18. OSCAR** (erdilaria): "El guillo" ezizenez ezaguna da. Alemanian jaio arren, egundoko azentu andaluziarra du hizketan, Huelvan hazitakoa baitugu. Gatz handiko gizona; aldagelako saltsa da. Txikito de la Calzada ederto imitatzen du.

**19. ALBESA** (atzelaria): taldeko altuena. Metro eta 87 zentimetroko neurria du. Taldez talde ibili da; futbolak duen "trotamundos" horietako bat dugu.

**20. ELADIO** (erdilaria): aspalditik dago Mendizorrotzan. Oso pertsona ona, zintzoa, langilea, barnerakoia... Lanik ilunena egitea egokitzen zaio beti.

**21. GURUZETA** (erdilaria): Errealeko jokalaria ohia. Toshackekin hamaika norgehiagoka jokatu zituen. Salva Iriarte iritsita, ordea, jokatzeari utzi zion.

**22. PABLO** (erdilaria): taldeko gasteiztar bakarra. Bere aita "El Caserón" jatetxeko nagusia dugu. Deportivo Alavesek Gasteizetik joaten utzi zion, eta gero, jakina denez, Lehen Mailan ibili da, eta orain berriro dugu gure artean.



*Ismael Diaz de Mendibil*



8. Joseba Agirre



12. Kuznetsov



9. Serrano



13. Tito



10. Bermudez



14. Pineda

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo platerekin  
Eguneroko Menua: 1000 pzt  
Betiko kazuelatxoak*

J A T E T X E A



*Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47  
•GASTEIZ*

# DenBORA pasa



15. Eloy



19. Albesa



16. Victor



20. Eladio



17. Ivan



21. Guruzeta



18. Oscar



22. Pablo

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	K	O	N	P	A				K	U
2	A	L	A		Z			H	U	R
3	N	A	H	I	K	O	A			L
4	P	R	I	M	E	R	A	K	O	A
5	E	I		A	N	E	T	O		I
6	Z	A		M	E	R	I	T	U	
7	U	G	T		N	E	K	O	S	O
8		A		E	G	T		I	T	O
9	O			O	A	N			E	Z
10	D	I	A	T			I	A	Z	

ZEHARRETARA: 1. Pilotari gasteiztarra, munduko txapelduna. (Ald.) Musika taldea. 2. Edo. Azkena. Erakuslea. 3. Aski. Berrogeita hamar. 4. x Oso ona, bikaina. 5. Bizkaieraz, omen. Pirineotako gailurra. lodoa. 6. Zamorako autoetan. Merezimendu. 7. Sindikatu. Nekagarri. 8. Lehena. Sindikatu. Uretan hil. 9. Oxigenoa. Joan nadin. Ezeztatzeko. 10. Hika, dizut. Joan den urtean  
GOITIK BEHERA: 1. Arabako

herri bat. (Ald.) Musika mota. 2. Euskal marrazkigile ospetsu bat. lodoa. 3. Gura. Tarragonako autoetan. Lehena. 4. Fosforoa. (Ald.) Muin, funts, Sindikatu. 5. Azken. 6. Errenteria. 7. Hala ere, hala eta guztiz. Lehen pertsona. 8. Errepikaturik, txori bat. Oihal eta ehunak egiteko gai. Lehena. 9. Edateko. Oxigenoa. Iritziz, aburuz. 10. Dotore, eder. (Ald.) Animal



	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	K	O	N	P	A					
2	A	L	A		Z			H	U	R
3	N	A	H	I	K	O	A			L
4	P	R	I	M	E	R	A	K	O	A
5	E	I		A	N	E	T	O		I
6	Z	A		M	E	R	I	T	U	
7	U	G	T		N	E	K	O	S	O
8		A		E	G	T		I	T	O
9	O			O	A	N			E	Z
10	D	I	A	T			I	A	Z	



## Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran • GASTEIZ



# CASA FELIPE jatetxetik

## Arabako sukaldarien maila oso ona da



**CASA FELIPE** jatetxean zerbitzari askoren ametsa gauzatu zen: beren jatetxea izatea. Felipe Luzuriagak Casa Felipe jatetxea sortu zuen orain dela 37 urte. Gaur egun, 77 urte ditu eta ondo gogoratzen du hasierako garai hura. Dudarik gabe, Gasteizko jatetxe eta taberna ospetsuenetarikoa da berea.

*Nola sortu zen Casa Felipe jatetxea?*

Ni orduan Txato tabernan (kobatxa izenez ezagutzen den lekuan) lanean ari nintzen zerbitzari. Ezkondu eta gero, emazteak eta biok erabaki genuen jatetxe bat gobernatzea. Hasieran, izena asmatzeko izan genuen arazorik handiena.

• AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA • AGENDA • URRIA •

# Gasteizko XX. nazioarteko antzerki jaialdia

**MARKELIÑEK** aurkeztzen duen "Tatapa" ipuin orijinala da; Lewis Carroll-en literatur mundu erakarri eta magikoarekin lotura zuzena duena ("Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian", "ispiluaren barrena"...)

Edozein adinetako ikuslerentzat izan badaiteke ere, umeei zuzendutako ipuina dugu batez ere. Eurak dira, hain zuzen, ikuskizunean bat egiten duten hiru lengoaiak -plastikoa, musikala eta dramatikoak- jasotzen dituztenak, ume izate horrek duen perzeptio eta emozio mundu bereziari esker.

Antzezlan hau ikusteko sarreramota bakarra dago: helduek 600 pta ordaindu beharko dute, haurrek 300.

"Denak Errudun" gogoeta bat al da? Agian ez. Beharbada erakuske-

ta bat baino ez da, baina izanak izan, ondorioren bat ateratzekotan, hauxe litzateke: egizu ahal duzun bezain ongi, baina, batez ere, ez zaitetz errudun sentitu, mesedez!

Lau protagonistak emakumezkoak dira, ama izan nahi izan dute, haien betekizunak antolatu behar dituzte, ezin diote amaginarrebari kasu egin. Emakume hauek ezin diote lan egiteari utzi umearen kargu bete-bete hartzeko. Hori lehengo kontu zaharra da, aspaldikoa. Edo ez, oraingoa da, gaur egungo amatasun mistiko hori da, punta-puntakoa, gezurra badirudi ere.

Antezzlana ikusteko sarrerak 1.200 pta balio du butakan, 900 l. anfiteatroan eta 600 bigarren anfiteatroan.

urriak 22, igandea  
6,30etan Principal Antzokian  
Markeliñe Antzerki taldeak aurkeztzen du  
**Tatapa** (gaztetxoentzat)

urriak 14, asteartea  
8,30etan Principal Antzokian  
Tanttakak aurkeztzen du  
**Denak errudun**



Orduan, niregana hurbildu zen bezero bat eta esan zidan Felipe izena jarri behar genuela eta halaxe egin genuen. Lehen, Casa Felipe Fueros kaleko 2an zegoen eta oraingoa, berria, berriz, Fueros kaleko 27an dago.

**Zergatik joan zineten handik?**

Erabaki gogor bezain derrigorrezko hura 1988an hartu genuen. Jantokia txikia geratua zen eta arazoak izan genituen sukaldeko kea zela eta ez zela. Izan ere, ez zegoen lekurik kea behar den moduan bideratzeko. Sukaldariak ez zeuden pozik lan-baldintzak txarrak zirelako. Orduan pentsatu genuen Fueros kaleko 27an zegoen kandela-lantegi zaharrera joatea. Erabakia ez zen nolana hikoia izan. Lekua ez zen ezaguna, taberna girokoa ere ez, baina gaur egun oso pozik gaude.

**Casa Felipe jatetxea ezaguna da gasteiztarren artean. Zer dela eta?**

Ez dakit zergatik garen ezagunak baina horrela da eta horrela izateko arrazoi asko

daude: jakien kalitatea alde batetik, bestetik prezioak, bezeroekiko harremana eta abar...

**Sukalde txoko honetan beti egiten diegu galdera berbera jatetxe guztiei: ligatzeko zer gomendatzen diguzu?**

Guk ditugun gauza guztiak onak dira baina ligatzeko nik gomendatzen dudana hau da: entremes batzuk hasteko, adibidez, hemengo urdaiazpikoa oso ezaguna da; jarraian, legatza frijitua edo txipiroiak; eta azkenik, etxeko postrea. Edateko, berriz, etxeko ardoa gomendatuko nizueke, guk gure bodegan gordetzen



duguna.

**Nola ikusten duzu sukaldarien maila Gasteizen?**

Egia da ez dugula izarririk Gasteizen baina bai oso sukaldari finak. Ez dut uste inor ausartuko denik esatera Gasteizen gaizki jan duela.

**Sekretu asko dituzue Casa Felipen?**

Ez, egia esan ez. Gure sukaldaritza betikoa da, sukaldaritza tradizionala. Menuaren barruan gauza asko ditugu plater asko, guztiok ezagutzen ditugunak.

Afaltzeko gogoz geratu gara Felipen, jatetxe atsegin honetan. Baina, alde egiteko ordua zela eta, geure bulegora abiatu gara, Felipe Luzuriaga kuadro eta pertsonaia famatuaren argazki artean utzita. Ea hurrengo batean animatzen garen Geu Gasteizkook hona afaltzera etortzen!

*Karlos Fdz. de Betoño*

**Floridako altxorra!**

35

**adaka M madinabeitia**

altzariak • apaindurak  
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59  
GASTEIZ



# MBA-UNAIREN ERASDA!!



# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
<b>UDALETXEA</b>	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	16 13 60
	GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	PERTSONAL SAILA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
<b>BULEGO TEKNIKOAK</b>	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA	Dato, 11	16 11 87	16 11 88
	ERROLDA ETA SOLDADUTZA	Dato, 11	16 11 06	
	BORONDATEZKO DIRUBILKETA	Dato, 11	16 16 68	
	ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33	
	INGURUGIROA	Dato, 11	16 11 20	
<b>OSASUN ETA KONTSUMO SAILA SAILA (DEMSAC)</b>	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
<b>UDAL ARTXIBOA</b>	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
<b>ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA</b>	ARGIBIDEAK		16 12 88	
<b>VILLA SUSO JAUREGIA</b>	ARGIBIDEAK		16 12 70	
<b>HEZKUNTZA SAILA (IME)</b>		Fray Zacarias	16 12 16	
<b>GIZARTE ETXEAK</b>	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa María kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50	
	ABETXUKO		24 47 14	
	ARIZNABARRA		13 36 91	
<b>EUROPA GIZARTE-ETXEA</b>	ARGIBIDEAK-KULTURA		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
<b>KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA</b>			13 36 91	



# axular

eta orain MUSIKA eta BIDEOAN ere  
eskaintzarik handiena !



## MUSIKA SAILA

- euskal musika
- pop-rock
- new-age
- etnikoa
- filme-doinuak
- klasikoa
- opera
- country
- blues-soul
- saltsa-latinoa
- errekopilazioak
- reggae
- orkestrak

*dena CD eta kasetean*

## BIDEO SAILA

- euskal bideoak
- haurrentzako bideoak
- dokumentalak
- musika bideoak
- nobedadeak
- klasikoak
- jatorrizko bertsiok

## eta GAINERA ...

- laser disk
- mini disk
- digital compact cassette



Arka kalea 11 • 01005 GASTEIZ  13 22 35